



BARREN

TOKIKOM

# Mina aztergai

Josu Zabala

**10 EGUN KIA**  
ESKAITZA ERREPIKAEZINAK OTSAILA 6-17



Hibridoak barne



The Power to Surprise

**NAIA CAR**

Apalategi auzoa, 1  
Eibar. Gipuzkoa

[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

Tel.: 943 70 70 33



**LAGUNAK**  
colchonera textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,  
kalitatezko chunak  
topatuko dituzu!

**MERKEALDIA**

**%25**eko beherapena  
Quality eta Kol etxeetako  
nordikoetan

**%45**eko  
beherapena umeen izara  
eta ohe estalkietan

**%40**eko beherapena  
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

  
elgoibar **ikastola**

**EUSKALDUNA,**

**HERRITARRA,**

**HEZKUNTZA EREDU PROPIOA,**

**ERALDATZAILEA**

Herritik sortuak eta heriarantz  
Kooperatiba  
Auzolana eta elkarlana  
Euskal Curriculuma  
Kompetentziatan oinarritutakoa  
Aitzindaritza Pedagogikoa  
Prestakuntza eta  
aholkularitza  
IHG+IB  
Ikasmaterialgintza  
propioa

Bikaintasuna ikasle  
hobekuntzan  
Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura


Euskararen ardatzuriko  
eleakintzasuna

Ongi etorri! Eskerrik asko!  
gurean izena  
eman duzuen guztioi

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

943 74 44 41

[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus)



4. PISUA  
2 logela - 2 bainu  
Hornitutako  
sukaldea  
**140.000 €**

**etxegain**  
BIZIGUNEA

**HIRU LOGELAKO  
AZKEN ETXEBIZITZAK**

10 metro koadroko terrazadunak  
**175.000** euroan hasita  
INFORMA ZAITEZ!



**AZKENEKO BI  
ETXEBIZITZA  
LEHENENGO PEORAN**

hiru logelakoak eta terrazadunak  
**185.000** euroan hasita

Esaguzu zer behar duzun, eta emango  
dizugu! Jar zaitez harremanetan  
**Grupo Eibarren Elgoibarko  
bulegokookin** eta adi entzungo  
ditugu zure beharrak, behar duzun  
hori emateko. **Zu garrantzitsua zara  
Etxegainen**, Elgoibarren bizitzeko  
aukeratuko duzun lekuan.



[WWW.ETXEGAIN.COM](http://WWW.ETXEGAIN.COM)

2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN  
TERRAZAK

TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK  
GARAJERA SARRERAREKIN

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

AZKENEKO  
ETXEBIZITZA BI  
BEHEKO SOLAIRUAN,  
TXOKOA ETA GARAJEA  
DUTE, ETXEBIZITZARA  
SARBIDE ZUZENAREKIN  
**195.000**  
euroan hasita

**elgoibar**

**GE** grupo eibar  
inmobiliaria

943 31 66 11

E.: [comercial@grupoelbar.com](mailto:comercial@grupoelbar.com)

San Francisco 32, bajo - 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OSIJA FINANZIARIA FOR:

**bankoa** | Groupe  
Crédit Agricole

## Gero eta gehiago gara aurkezle-sarean! Animatu zeu ere!

Euskaraldia ariketaren bigarren edizioa Elgoibarko entitate bati aurkezteko prest dagoen jendea behar da.

Aurkezle-sarean izena emateko:  [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

 943 741 626

 643 499 169

*Aurkezle-sarean izena ematen duzuenok beharrezkoa den laguntza eta materiala izango duzue, eta jasoko duzue formazioa, aurkezpenak egiten hasi aurretik.*



OIHANA APELLANIZ, 36 urte



IRUNE IRIONDO, 56 urte

### ◆ Zergatik eman duzu izena aurkezle-sarean?

Banuen herri-ekimenean batean parte hartzeko gogoia, eta Euskaraldiaren edizioa tokatu zait pare-parean. Eta euskarak beti behar gaituzenez ekintzaile, Euskaraldiaren aurkezle-sarean izena ematea erabaki nuen.

### ◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Aukeran eman digute guk nahi dugun entitatea aukeratzeko, eta Osakidetzako langilea naizenez, anbulatorioan aurkeztea erabaki dut.

### ◆ Nola bizi izan zenuen lehen edizioa?

*Belarriprest* gisa jardun nuen aurreko edizioan, eta oso ondo moldatu nintzen. Ariketa interesgarria iruditu zitzaidan. Txapa paparrean eramateak buruan klik eginarazi zidan, eta elkarrizketa bat baino gehiago gauzatu nituen euskaraz hari esker.

Fisikoki txapa ez daramat gainean egun hauetan, baina akordatzeko naizenez, klik egiten dut berriz ere. Ia edizio hau interesgarri egiten dugun berriz ere!

### ◆ Zergatik eman duzu izena aurkezle-sarean?

Euskalduna naiz eta euskaldun sentitzen naiz, eta zoritxarrez, euskararen alde zerbait egin beharra dagoela sentitzen dudalako eman dut izena. Saltsera samarra ere banaiz, eta gizarte ekintzetan parte hartzea eta laguntzea gustatzen zait. Ni euskaraz bizi naiz, eta hain ondo bizi naizenez, jendea animatu nahi dut eurak ere euskaraz bizitzera.

### ◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Gure alaba batek eskubaloian jokatzen du Sanlon, eta han aurkeztea pentsatu dut.

### ◆ Nola bizi izan zenuen lehen edizioa?

Ondo moldatu nintzen, baina uste dut rola ez nuela ondo aukeratu. *Ahobizi* izan nintzen, euskaraz bizi naizelako, baina *Belarriprest* aukeratu izan banu, uste dut jendeak gehiago hitz egingo zidala euskaraz. Umeen bueltan ibiltzen naiz asko, eta konturatu naiz nik erdaldunak zirela uste nuen askok umeei euskaraz egiten dietela, baina guri gaztelaniaz zuzentzen zaizkigula. Ohitura horiek aldatu beharra daukagu, lotsa kentzen lagundu eta helduekin ere euskaraz egiteko gai direla erakutsi behar diegu.







JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

## Porrotaren arrakasta

mantsotzea, eta botoaren konpromisoa baino ez eskatzea. Eta hori oso ondo ikusi genuen urtarilaren 30eko greba egunean. Gutun Sozialaren greba orokorrak eragin zabala izan zuen, eta manifestazioak oso jendetsuak izan ziren: 145.000 pertsona, lan, pentzio eta bizitza duinen eske, tokian-tokiko oihartzuna ezberdina izan arren. Halarik ere, "porrota" hitza baino ez zuten erabili. Horregatik, oraingo politikak bestelako bidea hartu behar du, egunero elkarriketek bestelako norabidea har dezaten. Baina horretarako sinetsi egin behar dugu. Ez da erreza izango; hori

*"Ni ez naiz uste horretakoa.*

*Politika -edozein gairi buruz ari garelarik-gizartearen arnasbidea da, eta gu, partaideak"*

badakigu, urte asko daramatzate gizartea etxekotzen. Gainera, aurreikuspenak ez dira oso baikorrak (presoena, krisiarena...). Lehen ekonomia zela eta, epe motzeko tarte erabiltzen zuten egoeraren larriari buelta emateko. Orain, ordea, inolako lotsarik gabe, hamabi, hamabost urteko tarte aurreikusten dute dramaren tamaina biguntzeko-edo. Baina ez dute egia osorik esaten: berriek badakite, oso ondo gainera, denbora tarte horren ostean bestelako parodia -dagoeneko orduko diseinuak zer nolako itxura hartuko duen jakingo dute- asmatuko dutela herri xeheak zaratarik ez egiteko, eta guk, poliki-poliki, beraien gustuko musikaren letra barnertzeko: "Petinak estutu! Interes handiak daude musikaren erritmoa ez aldatzeko, aldaka modu zakarrean ez mugitzeko. Hala eta guztiz ere, orain inoiz ez bezala, politika ahotan hartuta, benetako aldaketaren aldarrira erreibindikatu behar dugu. Ezin dugu gure irria hipotekatu. Bestelako munduan sinetsi behar dugu.

**B**adago jende asko politika hitza entzun, eta hotzikara sentitzen duena, eta orduan, beraien burua zuritu aldera, politikak sortutako goraberak gogorazten dizkigute, argi eta garbi ikus dezagun politika politikariek egin behar dutela. Halarik ere, ni ez naiz uste horretakoa; politika -edozein gairi buruz ari garelarik- gizartearen arnasbidea da, eta gu partaideak. Sistemak beldurra, etsipena zabaldu nahi du hedatutako gizarte ahul hori hobeto kolpatzeko, eta etekin handiak lortzeko. Baina gizarteak jakin behar du asmatutako parodia horren atzean dauden antzerkigile profesional horien asmoa ez dela ikusleari barre eragitea, baizik eta



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edume Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
ULOLA  
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDIARO  
ULOLA  
AYUNTAMIENTO

Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ► 26 URTE!

1994ko otsailaren 4an irten ginen estreinakoz zortzi lagun baserri base- rri kantuan eta eskean. Gure herriko ohitura zahar bat errekuiperatzea izan zen aitzakia, baina ez genekien base- rritarren erantzuna zein izango zen. Asko poztu ginen harrera ezin hobea izan genuela ikustean. Guri asko gus- tatzten zitzaigun egiten genuena, baina, batez ere, baserrietako atarie- tan zer bait berezia sortzen zela ikusi genuen.

26 urte pasatu dira ordutik, eta ur- teak ez dira alferrik pasatzen. Hasie- rako aitona-amona asko dagoeneko ez daude gure artean. Urtero-urtero abesten dugu Salbea etxeren batean. Aurten ere, zoritxarrez, Santa Ageda bezperan hil zen gure taldea asko esti- matzen zuen Antxola baserriko Justino. Ez ditugu ikusten, baina ondo gordeta dauzkagu gure oroimenean.

Asko eta asko joan dira, baina, zo- rionez, gure herriko baserri-etxeak ez daude hutsik, eta oraindik bizirik dirau duela 26 urte berpiztu genuen tradizio- aren sugarrak.

Gure asmoa jarraitzea da. Baserrie- tako bideak hartuko ditugu kantuan eta eskean, baserriarrok zuen etxeetako atea zabaltzen dizkiguzuen bitartean. Badakigu ez garela etxe guztietara hel- tzen, baina saiatzen gara maite gaitu- zuen tokietara joaten. Esaguzue, lasai, zuenera ere joatea nahi baduzue, gus- tura joango gara-eta.

Eskerrik asko 26 urteko ibilbidean bi- delagun izan zaituztegun guztioi: bertso- laria, trikitilariak, koruko jendea ... Zuei esker egin dugu orain arteko bidea, eta zuekin egin nahi dugu aurrera. Eta, zelan ez, eskerrak eman nahi dizkiegu Aias- tiako soziedadekoei urtero-urtero ematen diguten afariagatik. Eta, bereziki, Agusti- nek eta Balentinek gure taldeagatik egi- ten duten lana goraiatu nahi dugu; egiten duzuenak ez dauka preziorik!

Datorren urtera arte!

**Elgoibarko Izarrako  
Santa Ageda taldea**

## ► ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAN IRREGULARTASUNAK

Aste honetan GuraSOS elkartearen bidez jakin ditugu Zubietako erraustegia- ren inguruan gertatzen ari diren irregula- sunak. GuraSOSeK Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari eskatu dio iraungitza- eman dezala erraustegiari emandako in- gurumen baimen bateratua (IBB), froga faseetarako izendatutako epeak agortu dituelako. Era berean, erraustegiaren ku- deaketa daraman Ekondakin enpresak salatu du gezurrezko informazioak eman dizkiela agintariei, epeen agortze hori saihestu nahian. Horren ondorioz Indus- tria Sailak espedientea ireki dio enpresari irregulartasun horiek direla-eta. GuraSO- Sen arabera, enpresak gezurrak zabaldu ditu atzerapenak zuri- nahian eta joan den udan gertatutako istripu elektrikoaz eta bestetaz esandakoak ez dira gertatu Ekondakinek argudiatu bezala.

Laster batean Gipuzkoako Hondaki- nen Kudeaketak (GHK) ukatu egin ditu GuraSOS plataformak egindako akusa- zioak. GuraSOSeK publikatutako infor- mazioak ez datozela bat errealitatearekin, eta informazioa modu partzialean erabili dutela iritzi publikoa manipulatzeko. GHKren arabera, ekai- naren 11n ez zen inoiz transformadore- aren leherketa gertatu, "baizik eta konplexua energizatzen lanetan gerta- tutako gertakari bat izan zen, zirkuitu- bur bat eraginez". Jose Ignacio Asensio GHK-ko presidente eta Ingurumen dipu- tatuak "arduragabekeria" jokatzea ego- tzi dio GuraSOS plataformari, eta "alarma soziala" pizteko helburuz herri- tarrak "desinformatzea" leporatu dio.

Alarma soziala piztu? Arduragabeke- ria? Desinformatzea? Gure osasuna eta ingurumena jokoan daudela ahaztu zaie batzuei. Hau onartezina da. Herriarrok ustelkeriarekiko eta ingurumenaren hon- damendiarekiko zero tolerantzia izan behar dugu. Zubietako erraustegia 35 ur- terako osasun, ingurumen, ekonomia eta politika arloko arazo handi bat da gipuz- koar guztiontzako, baita elgoibartarron- tzako ere. GuraSOSeK dioen moduan premiazkoa da guztion artean irtenbide adostu, bidezkoa eta demokratikoa ema- tea. Auzitegiek, Legebiltzarrak eta Ba- tzar Nagusiak dagozkien neurriak hartu ditzatela orain!

**A.I. Z.**



## *Justino Badiola Arakistain*

2020ko otsailaren 4an hil zen, 77 urte zituela.

Haren oroimenez meza izango da, domekan, otsailaren 9an, 10:30ean, Sallobenteko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



## Mobilizazio jendetsuak egin ziren Elgoibarren eta Eibarren egunean, Eskubide Sozialen Gutunak deitutako greba egunean

an, pentsio eta bizitza duinak aldarrikatzeko Eskubide Sozialen Gutunak joan zen ostegunerako deitu zuen grebak eragina izan zuen gurean ere. Handia, sindikatuen arabera, eta apala, patronalaren esanetan. Grebak izan zuen jarraipena ez da erraza neurtzen, baina egun horretako mobilizazioetara, hori bai, milaka lagun batu ziren. Eguerdian, aspaldiko manifestazio jendetsuena egin zen Eibarren, eta iluntzean ere ehunka lagun irten ziren kalera Elgoibarren.

Goizean goiz pikete informatiboak ibili ziren lantegien bueltan, baina Elgoibarko herriguneko taberna eta saltoki gehienak zabalik egon ziren, bai eta industrialdeetan kokatuta dauden saltoki handiak ere, Dia izan ezik. Arratsaldean, mobilizazio orduan, gehiagok itxi zuten. Industrian, berriz, zaila da grebak izan zuen jarraipena neurtzea. Ateak itxita zituzten enpresa guztiek eta zaila zen zenbateko jardunean ari ziren antzematen, baina oro har esan dezakegu besteetan baino mugimendu apalagoa suma zitekeela industrialdeetan eta apartakaluetan ere ohi baino auto gutxiago



zeudela aparkatuta. ELA sindikatutik zabaldu zituzten datuen arabera, Rodisan, Danobaten, Gorosabelen (Mendaro), Grindelen, Giauton eta Sippen bozketa egin zuten langileek, eta Danobaten ez beste guztietan grebarekin bat egin zuten. Jarraipenik handiena ikastetxeetan izan zuen grebak. Elgoibar Ikastolan eta Herri Eskolan gutxieneko zerbitzuak eskaini zituzten. IMHn, ikasleek greba egin zuten, bai eta Institutuan eta Mekan ere.

Mekan, bestalde, 70 langiletik 17k egin zuten bat grebarekin. Bestalde, Lurralde-busek eta Euskotrenek ere gutxieneko zerbitzuak eman zituzten. Nolanahi ere, tren-zerbitzua etenda egon zen goizean, piketeek zuhaitz bat bota zutelako Berri-zen eta enbor bat trenbideko katenariaren gainera jausi zelako.

Mendaron ere ohi baino mugimendu apalagoa igarri genuen industrialdeetan. Ateak itxita zituzten enpresa gehienek eta zaila zen barruko dinamika antzematea, baina trafikoa ohikoa baino txikiagoa izan zen. Goizean puntapariak bota zituzten Kurutz-gain industrialdeko sarreran, eta lanera zihoazen dozena bat lagunuen autoen gurpilak zulatu zituzten modu horretan. Herrigunetan, baina, apenas izan zuen jarraipenik grebak. Bi taberna eta saltoki txiki bat izan ezean gainerako guztia zabalik egon zen, eta Udalean ere ohiko zerbitzua eman zuten. Mendaro Ikastolan eta Mendaro Ospitalean, bestalde, gutxieneko zerbitzuak eman zituzten. Mendaro Ikastolatik jakinarazi zuten irakasleen klaustroaren gehiengoak egin zuela bat grebarekin, eta ondorioz, ez zela ohiko eskolarik eman.





## Proiektuan egingo den aldaketa batek hiru hilez luzatuko du igerileku berriaren obra



azko azaroan hasi zituzten Olaizaga kiroldegiko igerilekua handitzeko lanak, baina lanak geldirik daude, zundaketa-lanekin hasterakoan ustegabeko emaitzak topatu zituztelako eta horrek eraikitze-sistema aldatu beharra eragin duelako. Aldaketa horrek igerileku estalien proiektua aldatu beharra ekarri du, eta joan zen asteke udalbatzaren osoko bilkuran onartu zuten aldaketa-proposamena. Aldaketa hori egiteak aurrekontuan ere izango du eragina: 367.758,26 euroko kostua izango duelako (BEZ barne). Udalak 2.881.142,40 (BEZ kanpo) euroan esleitu zion igerilekuak handitzeko proiektua Construcciones Amenabar S.A. eraikuntza enpresari. Era berean, aldaketa horiek egin ahal izateko, denbora gehiago ere beharko dute langileek, eta Udalak onartu du hiru hilabeteen luzatzea lanok bukatzeko epea. Izatez, hamalau hilabeteko epea zeukan Amenabarrek igerilekuko obrak amaitzeko eta Udalak aurreikusten zuen 2021. urte hasierarako erabiltzeko moduan egotea igerileku berria.

## Bolatokiko plaza berri eta zabaldu dute

Zabaldu dute Bolatokiko parkea. Udalak 161.072 euro pasa erabili ditu 2018ko aurrekontu parte-hartzailetan herritarren boto gehien jaso zuen lan hau egiteko. Proiektua bukatu berrikan EHBildutik kargu hartu diote udal gobernuari irisgarritasuna zaindu ez dutela argudiatuta. Eskaileren ordez arrapala jartzeko proposatua zuen EHBilduk. Elgoibarko Irisgarritasun Plana aurkeztean Ane Beitia alkateak esan zuen beti saiatzen direla irisgarritasuna zaintzen, baina kasu batzuetan, Bolatokian gertatu den bezala, ez dela posible, espazio faltagatik.



## Hilaren 27an hasiko da Errigoraren kanpaina

Otsailaren 27an zabalduko du Errigorak Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura kanpainaren edizio berria. Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina, kontserba-sortak, arroza eta pasta eskainiko ditu, euskaraz etiketatuta eta ekoizleek saltzen duten prezioan. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra arteko epea izango da eskararak egiteko, Errigoraren webgunearen bidez: [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus). Kanpaina honetako eskaintzaren barruan honako produktu hauek egongo dira aukeran: oliba-olio birjina estra, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, orburuak, barazki-menes-tra, tomate frijitua, arroza, potxak, barazki-kremak eta pasta.

## Manuel Salegi eta Joxe Mari Zialtzeta nagusi musean

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zuten zapatuan Elgoibarran, Tantaka tabernan, eta Manuel Salegi eta Joxe Mari Zialtzetak irabazi zuten. Sei bikote lehiatu dira aurten, gutxi beste urte batzuekin alderatuta, eta Gipuzkoako finalerako txartel bakarra egon da jokoan, Salegik eta Zialtzetak irabazi dutena. Horrez gain, lau lagunek Tantakan afaltzeko txartela ere jaso dute irabazleek. Seguran jokatuko dute finala, otsailaren 29an, eta aurrera egiten dutenek Euskal Herriko finala izango dute gero, martxoaren 14an, Zigoitian (Araba).



## Elgoibarko Udalak proposatutako hamalau proiekturen artetik lehentasun handieneko lau aukeratu ahal izango dituzte herritarrek

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua jarri du martxan Elgoibarko Udalak bigarren goz, eta hamalau proiekturen artetik lau gustukoena edo lehentasun handienekoak aukeratzeko aukera eman die herritarrei. 16 urtez gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute prozesuan eta otsailaren 13tik 16ra bitarteko epea izango dute botoa emateko. Bozkatzeko orduan beharrezkoa izango da datu pertsonalak ematea, pertsona bakoitzak behin bakarrik parte hartu duela ziurtatzeko. Internet bidez eman ahal izango da botoa, [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunera sartuta, baina baita aurrez aurre ere honako leku hauetan: Aita Agirre Kulturguneko sarreran, Jubilatuen Biltokian, Herritarren Arreta Zerbitzuan, Olai-zaga kiroldegian, eta gaur, baita Kalegoen plazan jarriko



duten karpan ere, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era.

Aurrekontuetan 200.000 euro gorde ditu Udalak honetarako. Hona hemen hamalau proiektuak:

- ◆ Industrialdeetara iristeko oinezkoentzako bideak egokitzea /Albitzurira joateko oinezkoentzako sarrera egokia egitea: 50.000 euro.
- ◆ Azkue (San Roke) auzorako irisgarritasuna hobetzea Karakoleko zubia konponduta: 35.000 euro
- ◆ Meliton eta San Pedroko etxeen arteko espaloiak berritzea: 45.000 euro.
- ◆ Txiki-txoko bat sortzea. 0-5 urteko umeentzako: 50.000 euro
- ◆ Umeen parkeetan hobekuntzak egitea: 50.000 euro.
- ◆ Ikastolaren alboan umeentzako parkea egitea: 50.000 euro
- ◆ Txakurrak egoteko eta jolasteko toki bat egitea: 25.000 euro
- ◆ Calistenia edo *workout* (aire librean kirola egiteko parkea) parkeak sortzea: 15.000 euro
- ◆ Adinekoentzako parke gehiago jartzea: 15.000 euro.
- ◆ Aizkorri eta Urazandi arteko bidearen azken zatia berritzea: 40.000 euro.
- ◆ Eskelentzako panelak jartzea: 10.000 euro.
- ◆ Neguko parkea egitea Urazandin, Herri Eskolako eskolaurrearen estalpea aprobetxatuta eta handituta: 50.000 euro.
- ◆ Hilerrian kolunbarioa egitea: 50.000 euro.
- ◆ Lekueder eta eliza arteko galtzada-harriak kendu eta zoladura aldatzea: 45.000 euro.

## Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute Foru Aldundiak lur batzuk desjabetzeko dituen arazoengatik atzeratu direla A-8 autobidean panelak jartzeko obrak

A-8 autobidean panelak jarri gabe daudela kargu hartu zion joan zen astean EHBilduk Udal gobernari, eta era berean, nabarmendu zuen panelak jarrita ere arazoa ez dela konponduko, ez baldin bada abiadura-muga jaisten. Abiadura-muga hori 80 kilometro orduan jartzea proposatu zuten, zarata gutxitzeko eta arriskua gutxitzeko: "Autobide tarte hori bihurria da, eta tarte horretan dauden babesak ez dira nahikoak. Ezin dugu ahaztu duela hilabete batzuk kamioia erori zela autobidetik Maltzagara". Udaletik erantzun dute panelen kontua ez dela Udalaren eskuduntzako gaia, Bidegirena baizik, baina obrak atzeratu baldin badira, desjabetzeekin dituzten arazoengatik izan dela. Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat lursail desjabetu behar ditu inguru horretan, eta kontu horiek "poliki" doazela nabarmendu dute Udaletik. Podemosek ere gai honen gaineko kontuak eskatu zituen Osoko Bilkuran, eta beste hiru kontu ere jarri zizkion mahai gainean Udal Gobernuari. Batetik, "behingo" legea betetzeko eta ikur frankistak kentzeko eskatu zuten. Bestetik, joan zen iraileko udalbatzarrean plenoak *streaming* bidez ematea onartu zutela gogoratu zuen Evaristo Rodriguez Podemoseko bozeramaileak, eta oraindik *streaming* sistema ez dagoela prest leporatu zion Udal Gobernuari. Azkenik, Udalaren webguneko informazioa zaharkituta dagoela eta berritzeko eskatu zuten, esate baterako, 2018ko udal aurrekontuak ageri dira eta hobariei buruzko informazioa eguneratzea falta da.



## Ia amaitu dituzte Mendaron Zelaikua Plazako irisgarritasuna hobetzeko lanak

Zelaikua plazarainoko bidearen irisgarritasuna hobetzeko lanak amaitzeaz daudela jakinarazi du Mendaroko Udalak. Lanek 91.777,22€-ko aurrekontua izan dute, eta bi helbururekin egin dituzte: batetik, irisgarritasun araudia betetzea, eta bestetik, behe-solairuetan dauden etxebizitzaren intimitatea zaintzea.



Horretarako, ibilbide berria fardara gehiegi hurbildu gabe eta atarietarako sarrerak lehengo antzera mantenduta egin dute. Obra hormigoizko armatuarekin egin dute, zati batzuk zubi gisa eraiki dituztelarik eta beste zati batzuek lur gainean egindako zoluen bidez. Ibilbideari hormigoizko akabera eman diote. Ibilbidean gehieneko aldapak %10 eta %8koak dira, eta gutxienez 1.2 metroko zabalera dute. Aldapek osatutako ibilbidean burdinazko baranda jarri dute, eta eskudelak jarri dituzte. Obra bukatzeko zoladura margotzea falta da.

Lan hauek eginda, Mendaroko irisgarritasun planean jasotako puntu garrantzitsuenetako bati irtenbidea eman zaiola esan dute arduradunek.

## 'Oin Alai' egitasmoko boluntarioen lana eskertzeko sariak banatu ditu Udalak



Oin Alai ekimena sustatzeagatik eta mugikortasuna bultzatzeagatik saritu ditu Udalak egitasmoko erabiltzaileak eta boluntarioak. Andrea Arriola Kultura zinegotziak eta Maialen Gurrutxaga Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko zinegotziak datozen egunetan Elgoibarren izango diren antzezlan eta zine emanaldietarako sarrerak banatu dizkiete Oin Alain parte hartzen duten 37 ikasleri. Boluntarioen artean, aldiz, Txankakuako dendetan gastatzeko 50 euroko 16 erosketa-txartel banatu dituzte.

## Elgoibar eta Mendaroko langabezia-tasa eskualdeko batez bestekotik behera

Debabarreneko langabezia-tasak behera egin du azken hamar hilabeteetan, baina urtaririlean gora egin du, eta %10,82koa da gaur egun. Elgoibarko eta Mendaroko langabezia-tasak, baina, eskualdeko batez bestekoaren azpitik daude: Urte hasierako datuen arabera, 500 langabe daude Elgoibarren eta % 9,04koa da langabezia-tasa. Mendaron, berriz, 78 langabe zenbatu dituzte urtaririlean eta %7,89koa da langabezia-tasa une honetan.

## 155.000 eurotik gorako saria Euromillones jokoa

Euromillones loteriako martitzeneko zozketak 155.596,49 euroko saria laga zuen Elgoibarren, Errosario kaleko Loteria Administrazioan. Bigarren mailako apustuarekin (5+1) egokitu zaio saria txartelaren jabeari, eta zozketa horretan ez zen lehen mailako saridunik egon.

## Jubilatuen Biltokiak Murtzia eta Valentziara antolatu du bidaia maiatzerako

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak Valentzia eta Murtzia inguruak ezagutzeko bidaia antolatu du maiatzerako. Maiatzaren 11tik 20ra izango da. Autobusez joango dira, eta Gandia eta La Mangako hoteletan hartuko dute ostatu. Besteak beste, Altea, Calpe, Albufera, Xativa, Alcoy, Javea, Lorca, Sierra Espuña, Cartagena, Mazarron, Caravaca de la Cruz, Archena eta Murtzia bisitatuko dituzte. Izena emateko epea zabalik dago. Ineteresatuek astelehen eta barikuetan eman dezakete izena, 11:00etatik 12:00etara, Jubilatuen Biltokiko egoitzan. Zuzendaritzatik jakinarazi dute plazak mugatuak direla, beraz, izena ahalik eta azkarren emateko gomendioa egin dute.

Josu Zabala (Elgoibar, 1980) min kronikoa ikertzen ari da, hau da, gutxienez hiru hilabetean irausten duen mina. Fisioterapeuta da Zabala, eta eskolak ematen ditu EHUko Unibertsitatean. Ikerketa talde bateko kide da, eta doktorego tesia egiten dihardu minaren inguruan. Orain arte uste zen min kronikoaren arrazoiak ehunetan bakarrik zeudela, baina azkenaldian kontrakoa esaten duen korrante bat ari da nagusitzen, eta horren arabera, minaren kronizitatea handitzen doan heinean, ehunetako erlazioa txikitu egiten da. Zabalak bere tesian bi tipologia horietako pertsonak sailkatu nahi ditu: lepoko mina ehunetako arazo baten ondorioz dutenak eta nerbio sistemak eragindako arazoa dutenak. Ikerketa horretarako boluntarioak behar ditu: batetik, gutxienez hiru hilabeteko epean lepoko mina izan duten pertsonak, eta bestetik, azken hiru hilabeteetan gutxienez min jarrairik sentitu ez dutenak. Ikerketan parte hartzeko interesatuek 606 282 577 telefonora deitu dezakete.


- AINHOA ANDONEGI -

#### ◆ Mina ikertzen ari zara doktorego tesian. Zertan datza zure ikerketa?

Neurozientzietako ikerketa talde bateko kide naiz EHU, eta mina aztertzen ari gara. Minak azken urteetan paradigma aldaketa bat jasan du, eta ikuspuntu biomediko edo biomekaniko batetik ikuspuntu neurofisiologikora pasatu da. Ni zehazki min kronikoa aztertzen ari naiz; lepoko min kronikoa. Orain arte uste zen minaren eta ehunen egoeraren arteko erlazioa zuzena zela, baina azken urteetako ikerkuntzek erakutsi dute ez dagoela korrelazio zuzenik. Ikusi da nerbio sistemak askoz eragin handiagoa duela minean, hau da, nerbio sisteman daukagun kitzikapen mailak eta garunaren prozesamendu guztiak ere eragiten diola minari. Egia da ehunetatik ere etorri daitekeela mina, baina guk jakin nahi dugu minaren jatorria zenbateraino den ehunetatik eratorria eta zenbateraino dagoen min hori nerbio sistemaren aktibitate oker bati lotuta. Minaren jatorriaren ara-

## ▶ JOSU ZABALA

FISIOTERAPEUTA



# “Minaren aurrean jarrera aktiboa hartzeak sendatze bidean jarriko gaitu”

bera, pazienteari tratamendu bat edo bestea aplikatuko zaio.

#### ◆ Nola definituko zenuke mina?

Mina da estimulu baten aurrean garunak daukan iritzi bat, berak ebaluatzen ditu bizitako esperientziak, egoeraren arriskuak, sentitzen dituen estimulak... eta horrekin guztiarekin sortzen du minaren pertzepzioa. Minak ez dauka balore objektiborik; mina beti da subjektuaren pertzepzio bat. Zenbaki bat izan dezake

minak, baina beti izango da subjektuaren subjektibitateak baldintzaturiko zenbaki bat. Mina ebaluazio bat da, eta gainera, oso aldakorra. Egun bakoitzean, gorpuzeko atal bakoitzean mina desberdin sentitu daiteke. Erabat subjektiboa da mina, ez dago min objektiborik. Mina sortzeko arrazoietako bat ehunen hiltzea da, hau da nekrosia, edo nekrosirako arriskua. Adibidez, erori eta kolpe bat hartzen baduzu, ehun batzuk hil egin daitezke. Gero



## “Minaren funtzionamendua ulertzen badugu, asko gutxitu daiteke”

inflamazio bat ematen da normalean, gero berriz jaitsi eta egoera konpondu egiten da. Eboluzio natural bat gertatzen da, eta inflamazioak irauten duen laupabost egunetan mina sentitzea normala da, gorputzeko atal hori babestu eta min gehiago ez eragiteko. Beste batzuetan mina arrazoi jakinik gabe agertzen da, edo ehunen nekrosiarekin lotzen diren ekintzarik gertatu gabe agertzen da. Kasu horiek ondo aztertu behar dira.

### ◆ Ikerketa egiteko paziente bila zabil-tza. Nolako pazienteak behar dituzu?

60 lagun behar ditut, eta momentuz, 20 dauzkat. Bi motatako boluntarioak behar ditut: batetik, behar dut gutxienez hiru hilabeteko epean lepoko minez dabilen jendea. Ez du esan nahi hiru hilabete jarraian minez egon behar izan duenik, baina behar dut nigana etortzen den momentuan minez egotea. Bestetik, guztiz kontrako pazienteak behar ditut. Hau da, azken hiru hilabeteetan minik eduki ez dutenak eta azterketa egunean ere minik gabe daudenak. Balorazio neurofisiologiko bat egingo diegu lehenik, eta gero, min kronikoa dutenei, lepoko mina tratatuko diegu, eskuterapia bidez. Lau sesio emango dizkiegu, eta bukaeran, berriz neurtuko diegu egoera neurofisiologikoa, diferentzia ikusteko. Ikerketatik kanpo etortzen den beste edozein pazienteek jasotzen duten tratamendu berbera jasoko dute boluntarioek, doan, eta gainera, neurketa neurofisiologiko bat egingo diegu makina zehatz batzuekin. Tratamendua Durangon izango da, nik hango zentro batean lan egiten dudalako. Saioak astean behin izango dira, beraz, garrantzitsua da paziente horiek hilabeteko epean gutxienez inguru honetan ibiltzea tratamendua egin ahal izateko.

### ◆ Pentsatzen duguna sentitzen dugula esaten da. Ados zaude baieztapen horrekin?

Bai, hori da. Azken batean garunak egiten duen ebaluazio bat da mina, eta gure bizipenek eragin handia dute. Adibidez, ikusi baduzu zure gurasoek gerriko mina eduki dutela, umetatik jaso duzun mezua da gerriko minak gurasoei kalte

egin diela. Orduan zuk gerriko mina baldin badaukazu, zure garunak estimulo horri ematen dion garrantzia askoz handiagoa da, eta zenbat eta garrantzi handiagoa eman, garunaren erantzuna orduan eta handiagoa izango da. Azken batean mina gorputzak daukan babes sistema da, eta babes hori sortzen du garunaren ebaluaziotik ateratako arrisku mailaren arabera. Denok erlazionatzen dugu mina gure bizipenekin.

### ◆ Nola eragiten du minak pertsonen bizimoduan?

Normalean min kronikoa duen jendeak neke sentsazioa edukitzen du, mugitzea kostatzen zaio, aktibitateko motibazio falta izaten du... Horrek ez du esan nahi pertsona hori horrelakoa denik, baina garunak askatzen dituen molekulen arabera bideratzen du gorputza aktibitateko edo pasibitateko. Minaren aurrean jarrera aktiboa hartzeak sendatze bidean jarriko gaitu. Garunaren joerak eragin handia dauka min bat sendatzerakoan.

### ◆ Jende askok automedikaziorako joera dauka. Mina sentitzen dugunean zer egin beharko genuke?

Jende askok gorputza autoarekin alderatzen du, eta uste du gorputza ere tarteka mekanikoarengana eraman behar dela errebisio bat egitera. Baina hori ez da horrela, gorputzak ez du autoak bezala funtzionatzen. Gorputza modu jarraian sortzen ari da, eraldatzen, moldatzen eta ez da gauza estruktural bat. Ez du beste norbaitek mugitu behar ondo egoteko, norberak egin behar du mugimendu hori. Ez dut esaten mina duzunean profesional batengana ez joateko; profesionalak ere laguntzen dute,

jakina, baina minaren aurrean norberak asko egin dezake. Azken urteetan paziente askori gomendatu diet tratamendu pasibotik aktibora pasatzeko, eta beraien bizi kalitatea asko hobetu da, niganako dependentzia gutxitu zaielako, eta hori oso garrantzitsua da. Min kronikoaren tratamenduan, dela esku-terapian, kirurgian edota pilulak hartzerakoan plazebo efektua kontuan hartu behar dugu. Asko ikertu da aipaturiko tratamendu ezberdin hauen onuren arrazoi nagusienetarikoa efektua plazeboa dela, baina hori beste gai luze bat da.

### ◆ Mina gutxitzeko gomendiorik?

Argi eduki behar dugu denok edukiko dugula mina momenturen batean, baina minari katastrofismo kutsua kendu behar zaio. Minari diogun beldurra galdu behar dugu. Normalean jendeak minari baino gehiago, minaren kronifikazioari dio beldurra. Hau da, jakingo bagenu min batek hiru egun iraungo dituela, aguantatu egingo genuke, baina, aldiz, betirako iraun dezakeen beldur gara. Ikerketek diote min kronikoaren kontrako sendabiderik eraginkorrena ariketa fisikoa dela, ariketa fisiko intentsoa. Progresiboki sartzen joan behar da ariketa fisikoa bizimoduan, baina frogatuta dago ariketa zenbat eta intentsoagoa izan, orduan eta min gutxiago edukiko dugula. Horren arrazoi aztertzen ari dira oraindik, baina badirudi gorputzeko atalak indartzen badituzu, garunak ebaluatzen duen min edo lesio arriskua txikitu egiten dela. Ondo jateak ere laguntzen du mina gutxitzen, eta oso garrantzitsua da baita ere jende positiboa edukitzea inguruan; pozik bizitzea, azken batean. Hau da, norbait hasten bazaizu zuk daukazun minarekin gurpildun aulkian geratzeko arriskua duzula esaten edo esaten badizu zuk duzun min hori sendatzeko oso zaila dela eta horrelako beste hainbat gauza, garunak egingo duen ebaluazioa horren arabera izango da. Autokonponketarako bide ematen duen jendeaz inguratzea garrantzitsua da. Azken batean, minaren funtzionamendua ulertzen badugu, asko gutxitu daiteke.

# Lurrari kolpeka



Zapatuan entzun genituen aurtengo lehen santa eske doinuak Elgoibarren Etxeginakoei esker, baina Santa Ageda bezperan ere izan zen koplak eta makila-hotsik herrian. Elgoibarko Izarrakoak baserriz baseri aritu ziren kantuan, eta Herri Eskolako, Elgoibar Ikastolako eta Mendaro Ikastolako haurrek ere ospatu zuten eguna. Bihar, Mendaroko koplarien txanda izango da. 8:30ean plazan hasita baserriz baseri eta kalerik kale jardungo dira kantuan, hiru taldetan banatuta. Bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)



Etxegina



Etxegina



Etxegina



Etxegina



Etxegina



Etxegina



Mendaro Ikastolakoak, ospitalean



Herri Eskolakoak





Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Izarra





## ▶ MAITE REMENTERIA

CODESYNTAX ENPRESAKO  
DISEINATZAILEA

CodeSyntax enpresak garatutako Egunean Behin aplikazioak jaso du aurten Interneteko Argia Saria. Barikuan banatu zituzten sariak Usurbilgo Atxega jatetxean eta Maite Rementeria elgoibartarrak, CodeSyntax enpresako diseinatzaileak, jaso zuen saria, lantalde osoaren izenean. Sariak eta astlehenean hasi zuten denboraldi berriaz jardun gara berarekin.

- AINARA ARGOITIA -

# “Aurten, Egunean Behingo erabiltzaileei eurei emango diegu aukera galderak proposatzeko”

### ◆ Zer izan da sari hau zuentzat?

Pozteko arrazoi bat. Egindako lanaren errekonozimendu bat da azken batean, eta halakoak beti dira pozgarriak.

### ◆ Hirugarren denboraldiari ekin zenioten astlehenean. Jolasaren esentzia ez dela aldatu nabarmendu duzue, baina aldaketa batzuk izan direla. Esaterako?

Orain arteko oinarri bera izango du: egunean hamar galderari erantzun beharko zaie ahalik eta denbora motzenez, eta aste amaieran ikusiko da zein moldatu den ondoen. Aldaketa handiena sailkapenean egongo da. Zortzi aste iraungo ditu hirugarren denboraldiak eta sailkapen orokorrerako zortzi aste horietatik lau aste onenak zenbatuko zaizkio parte-hartzaile bakoitzari. Finala ere izango da. Azpeitin jokatu zen iaz finala eta sailkapen orokorreko 100 lehenengoak zuzenean sailkatu ziren. Gauza bera egingo dugu aurten, baina oraindik ez dugu zehaztu finala noiz eta non jokatu den.

### ◆ Abendutik otsailera etena egin duzue, besteak beste galdera berriak sortzeko. Zeintzuk iturri erabiltzen dituzue?

Bai, galdera-sorta berriak geitu ditugu. Galderetako batzuk programazio bidez sortzen ditugu, beste asko Interneten, Wikipedian, dagoen informazioa erabilita, eta aurten, erabiltzaileei berriak galderak proposatzeko bidea ere emango diegu [Labur.eus/galdera-behin helbideetik proposatu daitezke galderak]. Iaz ere jaso genituen galdera-proposamenak guk eskatu gabe, eta baita oker zeuden galdera/erantzun batzuk zuzentzeko eskatzeko mezuak ere, eta feedback hori indartzeko bidea emango dugu aurten. Bestetik, EHUKo Informatika Fakultatearekin eta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzarekin elkarlanean, lehia-

keta ere antolatu dugu, informatikako ikasleek eta programazioaren zale direnek galdera-erantzun automatiko propioak egin ditzaten. Martitzenean hasiko da lehiaketa Donostiako Informatika Fakultatean egingo den ekitaldi batekin, eta denboraldia amaitu aurretik zehaztuko dira sariak. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du eta 100 euroko bost akzesit ere banatuko ditugu.

### ◆ Iazko urte amaieran 60.000 erabiltzaile izatera iritsi zintzen. 60.000 euskaldunen artean 3,5 milioi partida jokatu ziren. Langa oso goian duzue. Zer moduzko hasiera izaten ari da?

Pozik gaude. Ez gara 60.000ra iritsi jakina, hori oso kopuru handia delako euskal komunitatean, baina poliki-poliki ari gara eta pozik gaude lortzen ari garen emaitzekin.

### ◆ Otsailaren 3a noiz iritsi zain izan gaituzue. Behar bat sortu duzue. Hori bera bada lorpen bat.

Bai, hori da. Nik uste dut abendutik otsailerako etenak lagundu duela tentsio hori mantentzen. Eman-kendu horrekin lortu dugu hori, eta bide batez, deskantzurako tartea ere hartu dugu. Egia esan guk ia ez dugu marketinik egin. Guri erabiltzaileek eurek egin digute publizitatea, ahoz aho.

### ◆ Partida gehien, 60.000tik gora, 2. denboraldiko azken egunean jokatu ziren, abenduaren 29an, eta azpimarratu duzue abenduaren 25eko bazkari handiak lagundu zuela jokoa zabaltzen.

Bai. Geu ere harritu ginen Gabonetako piko horrekin. Ehunka talde sortu ziren abenduaren 25ean, eta seguru gaude horregatik izan zela, lagunak eta senideak elkartu zirelako eta ahoz aho zabaltu zutelako jolasaren berri. Hori du polita honek.



## '¿Qué nombre?...' antzezlan emango du Txalo Produkzioak-ek hilaren 14an, Elgoibarren

**T**xalo Produkzioak-ek '¿Qué nombre?...' antzezlan emango du gaur zortzi, hilaren 14an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Begoña Bilbao Legarzegik zuzendutako obra da, eta izen eta eskarmentu handiko aktoreak igoko dira oholtzara: Asier Sota, Mikel Laskurain, Alazne Etxeberria, Ane Gabarain eta Jose Kruz Gurrutxaga. Lehenengoz aita izango den gizon bat arrebaren etxera joango da arrebarekin, koinatuarekin eta haien lagun batekin afaltzera. Aitatasunak sortzen dituen poztasun eta aldarre onak izango dituzte hizpide han, ume jaiotze berriari jarri behar dioten izena aditzera emango duen arte. Egundoko kalapita sortuko du izenak, etxeko giroa erabat gaiztotzerainokoa. Umore handiko antzezlan da.



### Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie UEUren udaberriko ikastaroetan parte hartzen duten herritarrei

Aurreko urteetan egin izan duen bezala, Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak otsailetik maiatzera bitartean emango dituen ikastaroetan parte hartzen duten herritarrei. Eibarko, Iruñeko eta Gasteizko egoitzetan izango dira ikastaroetako asko, baina on-line egitekoak ere badaude. Programazioa eskegita dago UEUren webgunean: [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus).



### Villabonako Aurreku Txapelketan parte hartu dute Elgoibarko lau dantzari gaztek

Villabonako Aurreku Txapelketa jokatu zuten domekan, eta bertan izan ziren Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako lau dantzari: Jon Etxeberria, Aimar Almortza, Naroa Urrutia eta Nerea Galindo. Eskolatik jakinarazi dutenez fin aritu ziren dantzari gazteak jendeurrean. Martxoaren 1ean jokatuko da hurrengo saioa, Oiartzunen, eta Elgoibarko lau dantzari lehiatuko dira han: Malen Galarraga, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz eta Markel Goenaga.

### Pirritx eta Porrotxen saiorako sarrerak bihar jarriko dituzte salgai

Bihar, larunbata, jarriko dituzte salgai Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldirako sarrerak. Herriko Antzokiko lehiatilan erosi ahal izango dira bihar sarrerak, 19:15etatik 21:45era bitartean, baina Kutxabank plataformaren bitartez ere erosi ahal izango dira. Saioa martxoaren 6an izango da, Herriko Antzokian. *Bizi dantza* ikuskizuna aurkeztuko dute, eta ohi bezala, bi saio eskainiko dituzte, bata 17:00etan, eta bestea, 19:00etan.

### Puntako lau bertsolari ariko dira kantuan Mendaron, Motxaila Egunean

Martxoko hirugarren asteburuan ospatuko dute Mendaron Motxaila Eguna, eta dagoeneko iragarri dute martxoaren 13an egingo duten bertso saiorako kartela. Alaia Martin, Uxue Alberdi, Unai Iturriaga eta Andoni Egaña ariko dira kantuan San Agustin kulturgunean, 22:00etan. Maialen Olazabal mendarorra izango da jai-jartzailea. Sarrerak sei euroan jarriko dituzte salgai Morroskillo dendan eta Aitzbeltz tabernan.

### Buruarinak egiteko tailerra, hilaren 15ean

Otsailaren 15erako buruarinak egiteko tailerra antolatu du Elgoibarko Izarrak Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Hiru orduko tailerra izango da, hasi 10:00etan eta 13:00ak artekoa, eta Elgoibarko ludotekan emango dute. Haur Hezkuntzako lagarren mailatik Lehen Hezkuntzako bigarren mailara arteko umeentzat eta haien familientzako ikastaroa da. Otsailaren 9a arteko epea dago izena emateko. Elgoibarko Izarran eman behar da izena ([www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)) eta elkarteko bazkideek 8 euro ordainduko dituzte, eta bazkide ez direnek, 10.

## Euskadiko zazpi talde onenen aurka lehiatuko da Arilan eskubaloit taldea



Euskadiko txapelketako jubenil mailako promozio fasea jokatu zuten lau taldek joan zen asteburuan Elgoibarren, eta horietako bik lortu zuten bigarren faseko sailkatzea: Arilan Elgoibarrek eta Barakaldoko Zuazok. Bizkaitarrek lortu zuten lehen postua, jokatutako hiru partidak irabazita. Sanluko jubenil nesken taldeak bi garaipen eskuratu zituen: Leizaranen aurka (16-12) eta Eharialdearen aurka (29-19). Aldiz, 40-26 galdu zuten Zuazoren aurkako neurketa. "Orokorrean ez dugu guk nahi genuen irudia eman, baina helburua lortu dugu. Euskadiko zortzi talde onenen artean egongo gara bigarren fasean", adierazi dute taldeko arduradunek. Euskadiko txapelketako bigarren fasean honako zortzi talde hauek lehiatuko dira: Arilan Elgoibar, Bera-Bera, Kulluga, Aiala ZKE, Errotaberri, Zuazo, San Adrian eta Urnieta.

## Minbizia duten gaixoei laguntzeko Zumba saioa egingo dute Olaizagan

Dantza eta kirola uztartzen dituen Zumba saio berezia egingo dute otsailaren 16an Olaizaga kiroldegian. Ekin-tza minbizia duten gaixoei eta familiarrekoei laguntza ematen dien Gipuzkoako Asgicer elkartearen aldekoa izango da. Sei zumba irakaslek hartuko dute parte masterclasean, eta Elena Rodriguez elgoibartarra izango da horietako bat. Ainhoa A., Induara, Itziar eta Rey, Jhonson eta Ainhoa izango dira gainerako irakasleak. 11:00etan hasiko da saioa. Helduek 8 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko eta 10 euro ordainduta kamiseta bat jasoko dute opari. Era berean, umeentzako kamisetak ere izango dira, sei euro ordainduta. Izena emateko honako telefono zenbakira idatzi behar da: 633 827 422.



## Mugertza krosari buruzko marrazkiak ikusgai Olaizagan

Mugertza krosari buruzko bosgarren marrazki lehiaketan saritutako marrazkiak eta sarituak izan gabe aukeraketan onenen artean izan direnak Olaizaga kiroldegian ipini dituzte ikusgai. Otsailaren 28ra bitartean egongo dira kiroldegiko sarrerako parietetan zintzilik. Mintxeta Atletismo Taldeak eta Elgoibarko Udalak antolatutako lehiaketan 6 eta 12 urte bitarteko 350 ume hartu dute parte aurten. 77. Mugertza krosean parte hartu zuten atletei ongi-etorria egin aurretik egin zuten sari banaketa ekitaldian saritu zituzten irabazleak.

## Kilimon Trailerako izena emateko epea, zabalik

Kilimon Trail mendi lasterketaren hamargarren ekitaldia jokatuko dute aurten, apirilaren 4an, eta dagoeneko eman daiteke izena. Izenemateak [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) webgunearen bidez egin behar dira. Aurten ere luzeera desberdineko bi probatan parte hartzeko aukera izan dute mendiko saltakariak, 23 kilometrokoan eta 11 kilometrokoan.





## 'Euskal Herritik Pakistanera, Atapuercatik igaroz' hitzaldia, eguaztenean

**K**lima-aldaketa denon ahotan dabilen kontua da azken aldi honetan. Geologoek, baina, Lurraren historian klima beti eza-gutu dute aldakor, izan arrazoi astronomikoengatik (Milankovitchen zikloak, meteoritoen inpaktuak, e.a) edota prozesu geologikoengatik (tektonikak itsasoko pasabideak irekiz edo itxiz, sumendien errauts jaurtiketak, e.a). Egungo berezitasuna, ordea, zera da: gizakiok eragin dezakegula aldaketa hori edo azkartu bestela. Hala dio Arantza Aranburuk, EHUko Petrologia eta Mineralogia Saileko kideak. Morkaikok antolatutako natura eta zientzia jardunaldietako bigarren hitzaldia emango du otsailaren 12an (eguaztena), 19:30ean, Kultur Etxean. Arrazoiak-arrazoi, Lurrak bere 4.600 milioi urtetako ibilbidean pairatu dituen klima ezberdinek utzitako aztarnak arroka sedimentarioetan irakur daitezkeela dio Aranburuk. "Dena kontatzeak luze joko luke, eta beraz, geologo ibilbidean aztertu ditudan erregistro konkretu batzuk bakarrik izango dira iraganera begiratzeko erabiliko ditugun leihoak. Lehena, Behe-Kretazeoan hasiko da (110 Ma), poloetan urtu gabeko izotzik ez zen garaian. Gurean sakonera txikiko itsasoa zegoen eta garai hartako lekuko dira Aralar, Aizkorri eta Euskal Herriko gailur gehienetan ditugun kareharriak. Bigarren leihoa, berriz, Kuaternaria irekiko da (2,6-0 Ma), garai glaziar eta interglaziarren txandakapen jarrai eta ordenatuak markaturiko garaira. Honen lekuko Atapuercako kobetan pilaturiko erregistroa izango da. Eta amaitzeko, azken leihoan, gaur egun prozesu geologikoak bizi-bizirik ageri diren parajeetako batetara egingo dugu salto: Baltistango Hushe bailarara, Pakistanera". Hiru adibide horiek ikusita, klima ez dela inoiz geldirik egon eta berdina izan argi uzteaz gain, gizakiok eragindako berotze-efektuak 'berezko erritmo klimatikoan' izan dezakeen eragin atzeroezinaz hausnartzea da hizlariaren nahia.



## Urregarai-Santa Eufemiara mendi irteera



Morkaikok ikastetxeekin elkarlanean antolatzen dituen mendi irteeretan hurrengo Urregarai-Santa Eufemiara izango da, otsailaren 16an. Interesatuak ikastetxeetan eman behar dute izena. Azken irteera joan den urtarrilaren 26an egin zuten Arno mendira. Kalbario mendate gainera hasi ziren oinez, eta Morkaikok 1944an eraiki zuen aterpetetik pasa ostean, Arnoko tontorreraino ailegatu ziren irteeran parte hartu zuten 80 mendizaleak.

## Kortazabal iturria konpondu du Morkaikok

Atxolin mendian dagoen Kortazabal iturria konpondu zuten aurreko astean Morkaikoko hainbat bazkidek, orain dela sei urte Muskurutxuko iturriarekin egin zuten moduan. Mendi taldetik azaldu dutenez, duela urte dezente gertatutako lur jausi batek hondatu zituen iturria eta iturburua. Ingurua txikundu ostean, eta Modesto Ciden gidaritzapean, iturri berria eraiki zuten iturburutik pare bat metrora. "Aurrerantzean Atxolin eta Muskurutxu inguruan dabilzan mendizaleek prest izango dute berriro iturria egarria asetzeko", esan dute. Kortazabal iturria Sallobente aldeko magalean dago. Bertara iristeko Sallobente aldeko bidea hartu behar da, eta bidegurutzetik 200-300 metrora dago iturria. Zuzen garrantz jarraituz gero, Pagobedeinkatu aldera iritsi daiteke, eta, aldiz, behe-rantz hartuta, Upai Goititik Elgoibarrera itzultzeko aukera dago.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 685 386 485

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 631 489 128

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 638 963 048

Adinekoak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 658 856 500

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.  
☎ 632 729 261

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.  
☎ 632 992 730

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 612 493 913

Adinekoak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 632 354 511

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 612 257 146

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.  
☎ 688 219 057

Zerbitzari edo harrera lanak egiteko prest nago.  
☎ 671 246 762

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulazioa ditut. ☎ 626 407 923

Etxeko lanak egiteko, arropa lisatzeko, adinekoak edo umeak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko prest nago. Hiru urteko eskarmentua daukat.  
☎ 688 712 075

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke.  
☎ 612 548 108

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 632 402 661

Orduka lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Formazioa ere bai.  
☎ 636 517 025

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.  
☎ 658 464 396

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka.  
☎ 632 630 483

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Gavez, eta ospitalean ere bai. Baserriko lanak egiteko ere prest nago. ☎ 697 666 992

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.  
☎ 686 077 316

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Laguntzaile titulua daukat, eta esperientzia handia.  
☎ 943 748 899 / 685 724 861

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 632 159 486

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 631 931 030

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak (goizez edo arratsaldez) egiteko prest orduka.  
☎ 631 558 243

**Eskaintzak**

DBH3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dugu.  
☎ 617 386 198

Heldu bati euskara irakasteko irakasle partikularra behar da.  
☎ 650 601 301 (Victor)

Asteburuetan lan egiteko ile-apaintzailea behar da.  
☎ 943 246 225



DBH1eko klase partikularrak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil.  
☎ 644 391 912

Unibertsitateko hautaprobea prestatzeko irakaslea behar da.  
☎ 688 851 167

**GARAJEAK.....**  
Garaje itxia alokatzen dut Jausoro plazan. Kotxe handia kabitzen da. Udaletxetik gertu.  
☎ 672 422 237

**ETXEBIZITZAK.....**  
Etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 637 966 749

**BESTELAKOAK.....**  
Erretiro zahar batzuk topatu ditugu San Roke kalean. Udaltzaingoan utzi ditugu.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Instituto Vasco de Administraciónes Locales Económicas</p>  <p><b>ROSA Ma PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Etxebizitza bat erosi dut, eta erabateko berritze lanak egiteko asmoa daukagu. Obra egiteko hartu dugun enpresak adierazi digu gure etxebizitzaren barrutik igarotzen diren eroanbide orokorretan egokitzapenak egin behar direla. Jakin nahi nuke egin ditzakegun edo baimena eskatu behar dugun.</b></p> <p>Etxebizitza barruko obren kasuistika askotarikoa da, eta garrantzi komunitarioa du. Kasu horietako bat gertatzen da jabe batek, modu indibidualan, eraikinaren kanpoko fatxadako galeriak ixten dituenean, normalean metalezko egitura arinen bidez, aluminioz edo kristalez. Legeak debekatu egiten ditu eraikinaren kanpoko itxura edo egoera aldatzen duten jarduketak. Era berean, ezin dira hutsuneak ireki etxebizitzaren edo lokalaren kanpoko hormetan, nahiz eta hutsune horiek ez izan horma nagusi edo karga-hormetan. Debeku hori arrazoizkoa da, ez soilik higiezinaren kanpoko egoera edo konfigurazioa aldatuko lukeelako, baizik eta, batez ere, eraikinaren itxitura-hormak edo perimetro-paretak elementu komun bat direlako, jabeen banakako jardunarekin zerikusirik ez duena. Azkenik, pisu edo lokalaren barrutik pasatzen diren eroanbide orokorrek ere ezin dira aldatu. Desbideratzen badira ere, horietako batzuek funtzionaltasuna gal dezakete, itxuraz kalterik egiten ez duen jarduera batekin.</p> <p><b>GOMENDIOA. Horrelako jardueretan, besteak beste, Komunitatearen baimena behar da, eta teknikari eskudunak gainbegiratu beharko ditu obrak, funtzionaltasuna bermatuz.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	--





Zorionak, **txapeldun**, igandean 9 urte beteko dituzulako. Muxuak familiako guztien partez.



Zorionak, **Jakes**, otsailaren 5ean 5 urte bete zenituelako. Familiako en partez. Ondo-ondo pasa!



Zorionak, **Leire**, gaur 8 urte egin dituzulako. Segi urteak osasunez betetzen. Aupa *biixito!*



Zorionak, **Dilan**, atzo 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko en eta lagun guztien partez.



Zorionak, **Arai**, astelehenean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko en partez.



Zorionak, **Leirel**, Muxu pila bat etxeko en partez. Den-denak ez, amaren zorionetarako gastatu ditugulako batzuk. Ondo ospatu domekan.




Zorionak, **Jare!**, 8 urte, neska handi! Patxo handi bat etxeko en eta bereziki, Aratz, Ibai eta Lieiren partez.



Zorionak, **Erik**, otsailaren 11n 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko en partez.



Ongi-etorri gure artera, **Erikl**, Etxeko guztien partez. Maite zaitugu.



Oso ondo pasatu genuen, **Amets**, zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko en partez.



Zorionak **Auritz** eta **Sare** bihurriei! Astelehenean hiru kandela itzali behar dituzue... Muxu erraldoi bat etxeko en eta bereziki, amama Izaskunen partez.

Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

Erretratu bakarreke agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€  
ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreke agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

## L6FBG141 AEG ARROPA GARBIGAILUA



469 €

10KG • A+++(-20%) • 1400 r.p.m. • Dendako prezioa

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

*Produktuek agortu arte.*

RPS 18312  **40.** urteurrena **UZURI** optika audio  
ELGOIBAR - DEBA San Frantzisko, 21 - Elgoibar Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



**Inauterietarako fantasiako eta koloretako lentillak**



**Berria!**

Aurten fantasiako lentilla graduatuak ere baditugu!

Graduatu gabeko lentillak **19€**  
Lentilla graduatuak **25€**



Orange Werewolf



Red Devil



Dragon Eyes



Blood Shot



Blackout



Sky Blue

## 8 ZAPATUA

**8:30** Santa Eskea, Mendaron. Herriko Enparantzan hasita. Beñat Lizaso, Beñat Ugartetxea, Aitor Salegi, Amaia Agirre eta Unai Mendizabal ariko dira koplari eta baserri jardungo dira kantuan, hiru taldetan banatuta.

**19:15** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldirako sarrerak jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko lehiatilan eta Kutxabanken.

## 9 DOMEKA

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika Urain.

1. *Crown imperial* (A Coronation March, 1937). W. Walton.

2. *The legend of Ali-Baba* (B. Apper-mont).

3. *La santa espina* (Sardana). E. Morera.

4. *Black el payaso* (Lehenengo selekzioa). P. Sorozabal.

## 12 EGUAZTENA

**19:30** Natura eta zientzia jardunaldiak. Euskal Herritik Pakistanera, Atapueratik pasatuz. Arantza Aranburuk emango du hitzaldia. Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 13 EGUENA

**19:00** Isiltasun Eskolako meditazio saioa. Kultur Etxeko sotoan.

## 14 BARIKUA

**20:30** Antzerkia: *¿Qué nombre...?*. Txalo Produzioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

### Zinea (Herriko Antzokian)



#### 'Legado en los huesos'

7 barixakua: 21:30

8 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

9 domeka: 19:00

10 astelehena: 21:30

#### 'Espías con disfraz'

9 domeka: 16:30

#### 'The Farewell'

(Ongarri zinekluba)

13 eguena: 21:30



### Urtarrilean hildakoak

- **Rosario Amestoy Fernandez**  
91 urte, urtarrilak 2
- **Tomasa Arcos García**  
90 urte, urtarrilak 3
- **Luisa Zubizarreta Andonegi**  
92 urte, urtarrilak 3
- **Ramon Aranburu Igarzabal**  
84 urte, urtarrilak 3
- **Basilio Larreategi Olariaga**  
85 urte, urtarrilak 4
- **Blanca Jauregi Arriaga**  
86 urte, urtarrilak 10
- **Maria Armendia Ajuriagoikoa**  
98 urte, urtarrilak 11
- **Eugenio Intxausti Zubizarreta**  
83 urte, urtarrilak 13
- **Francisco Sota Allende**  
88 urte, urtarrilak 17
- **Engracia Altube Uribe-Etxebarria**  
92 urte, urtarrilak 13
- **Jesusa Odria Barrenetxea**  
87 urte, urtarrilak 20
- **Jesus Mari Azpiazu Amuategi**  
66 urte, urtarrilak 21
- **Maria Jesus Barrutia Etxaniz**  
76 urte, urtarrilak 22



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
7 BARIXAKUA	8 ZAPATUA	9 DOMEKA	10 ASTELEHENA	11 MARTITZENA	12 EGUAZTENA	13 EGUENA	14 BARIXAKUA
Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>
Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebaren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984



II. URTEURRENA

## Jose Miguel Azkoitia Artetxe

2018ko otsailaren 6an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, barikuan, otsailaren 7an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Beti gure bihotzean**





# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

"Spiderman nire superheroi gogokoena da"



Jason  
Felguera  
Andrei,  
5 urte,  
Elgoibar



Jon  
Zendoia  
Ovejero,  
8 urte,  
Elgoibar

"Aizkolaria"







I. URTEURRENA

## *Arantza Berasaluze San Martin*

2019ko otsailaren 8an hil zen, 59 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 8an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barreanean  
eramango zaitugu betiko.***

Senideak eta lagunak




VI. URTEURRENA

## *Idoia Laka Lizaso*

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. Haren oroimenez VI. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 8an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan,  
utzi gaituzu penetan,  
orain gure ametsetan,  
bizirik zaude benetan,  
zeruko izarretan.***

Zure familia



VI. URTEURRENA

## *Idoia Laka Lizaso*

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,  
baina badakigu hor zaudela gure bihotzetan.  
Zure indarra eta alaitasuna eredu.***

***Maite zaitugu.***

Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak



# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



### Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-Of/ 1-P  
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)



Olcaso industriagunea, 17 beheka  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Aroztegia Carpinteria

### ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[telefon@pagoagasa.com](mailto:telefon@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

FONTANERIA  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B  
Elgoibar  
Floren Ckd: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523

[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka  
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheka - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA



Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten dituzte

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

- Igeltseritza
- Pintura

## ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranzaj@icmail.com](mailto:karranzaj@icmail.com)

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruuzuno, 14 beheka  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223

[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea